

Bloody Sunday, 40 urte

Itxiko ote zauria?

1972ko urtarrilaren 30ean, epaiketarik gabeko espetxeratzea baimentzen zuen legearen kontrako manifestazio batean, Armada britainiarrak 26 zibil balaz zauritu zituen Ipar Irlandako Derry hirian. Haietako 13 egun berean hil ziren eta hamalagarrena lau hilabete geroago. Egun hura Bloody Sunday (Igande Odoltsua) izenarekin ezagutzen da geroztik.

ANDER LEON

XX. MENDEKO 60 hamarkadan, AEBetako ereduari jarraituz, esku-bide zibilen aldeko mugimendua eratu zen Ipar Irlandan. Helburua, hauteskundeetan eta lanpostuen nahiz etxebizitzaren banaketan, gutxiengo katolikoak jasaten zuen diskriminazioarekin amaitzea zen. Hasierako urratsak baketsuak izan baziren ere, lealisten erasoek eta berezko haserreak gatazka biolentoa sortarazi zuten laster. 1969an, Derryn, Bogside auzoko bataila izan zen puntu gorena, eta egoera kontrolatu ezinik, Ejertzito britainiarraren esku-hartzea eskatu zuen Ipar Irlandako Gobernuak. Katolikoek ongietorria eman zieten tropei, bakea ekarriko zutelakoan, baina laster harremanak ozpindu ziren, batez ere 1971ko uztailan soldaduek bi gazte katoliko hil zituztenean. Heriotzen ondorioz, istiluak ugartu egin ziren eta urte bereko abuztuan *Internment*-a ezarri zen, hau da, epaiketarik gabeko espetxeratzea. Neurri horren kontrako protestetan 21 lagun hil ziren hiru egunetan. Horrez gain, IRA Probisionalak 30 soldadu hil zituen abendu bitartean, haietako zazpi Derryn.

1972ko urtarrilean, Ipar Irlandako Eskubide Zibilen Elkarteak *Internment*-aren kontrako manifestazioa antolatzeko asmoa azaldu zuen. Martxa guztiak debekatuta bazeuden ere, agintariek hau baimentzea erabaki zuten, beti ere auzo katolikora mugatzen bazen,



1972an Derryn izan zen tiroketaren irudi ezaguna: Edward Daly apaiza (zapi zuria eskuan duela) eta beste batzuk, herioan den 17 urteko mutikoa lagundu nahian.

hiriaren erdigunera hurbildu gabe. Ejertzito britainiarreko Parakaidisten 1. Batailoia Derryra eraman zuten, eliteko tropak, balizko istiluak eragileak atxilotzeko asmoz. Baina soldadu batek beste bertsio bat azaldu zuen Channel 4 telebista kateko erreportaje batean: “Irakasgaia ongi irakatsiko diegu.

Bihar hildakoak nahi ditut” esan omen zien komandanteak. Helburua ez zen atxilotzea, lezioa emateko balioko zuen sarraskia egitea baizik.

Urtarrilaren 30ean, arratsaldeko ordubietan manifestazioa hasi zen. Iturri ofizialek azaldu zuten, badirudi gazte batzuek harriekin

eraso zituztela tropak, baina garrantzi gutxi liskarrak ziren, intentsitate baxukoak. Soldaduen erantzuna, manifestariak tirokatzea izan zen: 14 pertsona hilda, 12 balaz zaurituta eta beste bi egoera larrian Ejertzitoaren ibilgailuek harrapatu eta gero.

Bi txosten

Gertaera haiek argitzeko, ikerketa martxan jarri zuen Westminsterreko Parlamentuak 1972ko otsailaren lehenengo egunetan. Ikerketa horrek bere egilearen izena hartuko du: Widgery epailearena. Hiru hila-beteko lana eta gero, 46 orriko txosten bat argitaratu zuen ejertzitoaren testigantza baieztatuz, hau da, tropak eraso zituztela eta tiro guztiak defentsan egindakoak zirela. Hildakoen senideen ustez “errudunak errugabe eta errugabeak errudun bihurtu zituen Widgeryk”. Txosten horrek Ejertzito britainiarri aurpegia zuritzen ziola ikusi zuten askok, eta ondorioz, justizia egiteko biolentzia erabiltzearen aldekoen jarrera indartu zuen. Gertatutakoaren eraginez, ehundaka gazte IRAn engaiatu ziren hurrengo urteetan eta gatazka asko gogortu zen.

Hildakoen senideek kanpaina abiatu zuten 1992an, *Bloody Sunday Justice* izenekoa. Ikerketa zabalagoa eskatzen zuten. Elkarre horren kide ezagunena John Kelly da, 17 urteko Michael Kelly hildakoaren anaia eta Free Derry museoko arduraduna. “Guk justizia nahi genuen, gu ez gara Sinn Féin edo IRA, senideak baino ez gara”. Protestanteek ulertzen zutela esan zieten, baina hala ere ez zuten laguntza handirik jaso: “Pribatua arrazoia ematen ziguten, zuten ari ginela, baina publikoki ezin zutela esan aitortzen ziguten”.

Tony Blair lehen ministro zela, 1998ko urtarrilean presioei kasu eginez eta bake elkarrizketen eraginpean, ikerketa berria martxan jarri zen, Lord Saville epaileak gidatuta. 12 urteko lanaren ondoren —eta 234 milioi euroko kostuarekin— 922 ahozko testigantza jaso zituen, beste 1.562 idatzizkoak, 110 bideo zinta, 121 audio eta milaka dokumentu. Britainia Handiko his-

torian inoiz egin den ikerketa zabalena. Ugari eta ezagunak izan dira Defentsa Ministerioak ikerketa oztopatzeko hartutako lanak: 1.000 argazkitik gora desagerrarazi zituen, testigantzak ukatu eta armak suntsitu zituztela esan, gero haietako batzuk Sierra Leonan edo Libanon aurkitu dituzten arren.

Emaitza, 2010eko ekainaren 15ean publikatutako 5.000 orriko txostena izan da. Egun horretan, Derryko udaletxeko plazan jarritako pantaila erraldoiaren aurrean milaka lagun bildu ziren erabakia-zen zain. Txostenean Igande Odoltsuan hildako guztiak errugabeak zirela onartzen da; Ejertzitoak kontrola galdu zuela aitortu eta ikerketaren emaitzaren harira, David Cameron, Erresuma Batuko lehen ministroak, barkamena eskatu zien senideei, zauritutakoei eta Derryko herriari, egindakoa “ez justifikatua eta justifikaezina” zela esanez.

Erreakzioak

John Kellyrentzat Saville txostena oso positiboa da, baina ez nahikoa. Pozik dago hildakoak errugabeak zirela aitortzen duelako, baina ez du uste soldaduek kontrola galdu zutenik: “Parakaidisten lana hiltzea da, eta horretara etorri ziren Derryra, goitik agindutakoa betetzera eta hor, goian, ardurak egon behar dira” esan zuen. Soldaduen prozesamendua ere eskatzen du Kellyk: “Nire anaia hil zuena kartzelan ikusi nahi dut, badakit zein den ‘Lance Corporal F’ ezizeneko soldadua. Bake Itunetik datorren amnistia paramilitarrentzat da, ez soldaduentzat. Michael ek ez zuen inolako asmo politikorik, bera manifestazioa joan zen bere lagunak joan zirelako, eta ez zen etxera bizirik bueltatu, bere gorpua itzuli ziguten. Denborak ez du gertatutakoaren larritasuna arintzen”.

**2010ko ekainaren 15ean
publikatutako 5.000
orriko txostenean, Igande
Odoltsuan hildako guztiak
errugabeak zirela
onartzen da**

14 hildakoak

- John Duddy. 17 urte
- Patrick J. Doherty. 31 urte
- Bernard McGuigan. 41 urte
- Hugh P. Gilmour. 17 urte
- Kevin McElhinney. 17 urte
- Michael G. Kelly. 17 urte
- John P. Young. 17 urte
- William N. Nash. 19 urte
- Michael M. McDaid. 20 urte
- James J. Wray. 22 urte
- Gerald Donaghy. 17 urte
- Gerald McKinney. 34 urte
- William A. McKinney. 27 urte
- John Johnston. 59 urte

Unionistak ez daude pozik. Beraien ustez, Saville txostena katolikoak lasaitzeko gezur bilduma baino ez da. Gregory Campbell Democratic Unionist Party-ko parlamentaria da eta oso garbi du bere iritzia: “Bloody Sunday kondaira bihurtu dute komunikabideek eta hainbat artistak. Gatazka garaietan hildako ugari egon ziren, haietako bi heren IRAk eragindakoak. Zergatik eman batzuei hainbeste garrantzia eta beste batzuei ezer ez? Deklarazioetan ustezko lekukoei ikaragarritzko xehetasunekin deskribatu zuten 35 urte lehenago gertatutakoa. Nik ez dut gogoratzen orain dela 35 aste egin nuena, beraz zer egin dute katolikoek? Mitifikatu, eta mito horren gainean txosten bat eraiki. IRAko biktimentzat iraina da eta britaniar guztientzat umiliagarria Cameronen barkamena eskaera”.

Beste protestante batzuk ez dira hain erradikalak. Derryko hiru Elizatako ordezkariak, adibidez. Hauek, txostenaren emaitza eza-gututa Bogside auzunera hurbildu ziren, sarraskia gertatu zen tokira, hain zuzen ere, “giza tragediari ez ziotela behar bezalako garrantzirik eman” aitortzera. Elkarre orangista bateko William Stewarrek txos-



ANDER LEON

John Kelly Free Derry museoko arduradunari anaia Michael hil zioten 1972ko gertaeretan: “Parakaidisten lana hiltzea da, eta horretara etorri ziren Derryra, goitik agindutakoa betetzera, eta hor, goian, ardurak egon behar dira”.

tena elkarbizitzarako positiboa izan zela azpimarratu du, biolentziaren aldeko argumentua kentzen dielako. Hala ere, bere ustez gezur asko esaten dira: “Hildako asko balak errebotan jo eta gero hil ziren. Konbatean bazau, leherketen artean, ez zara pentsatzen geratzen bota nahi dizutena harri bat edo bonba bat den, tiro egiten duzu instintiboki”, dio soldadu ohia den Stewarrek eta “horrek ez du kentzen egun hortan errugabe batzuk hil zirela onartzea. Bakerako urrats bezala baloratu behar da, ea gorrotoaren atea ixten duen”.

Ateak itxiko dituelakoan dago Joe Doran, BBC irratiko esataria ere: “Derryra lanera etorri nintzeanean astero zegoen zerbait Bloody Sundayren inguruan. Informazio politiko gehienak hortik zetozen. Azken urte eta erdi honetan, aldiz, gauzak asko aldatu dira eta beste gai interesgarriak ari gara jorratzen irratsaioan: 2013an Derryk izango duen Kultura Hiriburuaren izendapena, krisialdia, Bakearen Zubi berria, elkarbizitza, Derryko jokala-

riak dituen Irlanda futbol Euroko parako sailkatu izana...”.

Arazoa, hala ere, ez dago itxita. Horren adibidea kalte-ordainen auzia izan da. Gobernu britainiarrak, zaurituei edo hildakoen senideei diru kopuru bat ordainduko diela iragarri du eta horrek banaketa ekarri du kaltetuen artean. Batzuk dirua hartzearen alde azaldu dira, beste batzuek ez dute ezer hartuko soldaduak prozesatuak izan arte eta hirugarren adarrak ez du “Londreseko inolako karitaterik onartuko”. Konponbidea beranduegi etorri izanaren kexa ere oso zabalduta dago. Hildako gehienak oso gazte ziren eta ez zuten seme-alabarik. Guraso guztiak zendu dira eta anai-arreba batzuk baino ez dira geratzen kalte-ordai-

Gobernu britainiarrak zaurituei eta hildakoen senideei diru kopuru bat ordainduko diela iragarri du eta horrek banaketa ekarri du kaltetuen artean

nak jasotzeko. Beste alde batetik, Unionisten iritzia dugu: “Pandora-ren kutxa ireki du Gobernuak. IRAko biktimei nork ordainduko die?” dio Gregory Campbell

40. urteurrena ez dute publikoki ospatuko senide gehienek. Urtero egin ohi zen manifestazioa bertan behera uztea eskatu dute. Antolatzailerik, ordea, ez dute amore eman eta deialdia indarrean dago. “Zerbait egiten badute senide gehienek iritzia kontra daudela jakin behar dute” adierazi du John Kelly-k. Eskubide zibilen aldeko martxa egunez aldatzen badute, parte hartuko duela esan du, baina ez egun berean: “Gureak modu pribatuan gogaratuko ditugu” dio Kelly-k

Senide askoren gogoaren kontra bada ere, Bloody Sundayren gaiak, bizirik segitzen du. Leku berezia du derrytarren oroimen kolektiboa eta Ipar Irlandako borrokaren historian. Zauri nagusia itxita egonda ere, beste batzuek irekita diraute. Joe Doranek luzerako zeresana edukiko du bere irratsaioan. ■

